

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

Aldaketa, ezintasun egoera onartuta duten pertsonen banakako laguntzak emateko deialdi publikoarena – 2016ko ekitaldia

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak, 2016ko irailaren 15ean egindako bilkuran, 2016ko maiatzaren 2an erabakitako laguntza deialdiaren aldaketa hau onartzea eta argitaratzea erabaki du, eta 2016ko maiatzaren 20an ALHAOn argitaratu zena. Hona hemen hura arautuko duten

OINARRIAK

Lehenengoa. Deialdiaren xedea

1.1. Deialdi publikoa irekitzen da ezintasuna onartuta duten pertsonen banakako laguntzak emateko 2016ean.

1.2. Laguntza horien xedek dira onuradunen bizi kalitatea hobetzea, ezintasunak haiei sortzen dizkien beharrak asetzea, eta haien autonomia, garapen pertsonala eta gizarteratzea sustatzea. Horretarako, prestazio ekonomiko bat emango zaie edo horren erabilera lagako, osorik edo partez konpentsatzeko laguntzen onuradunek ezintasunagatik egin behar dituzten gastuak, dela ekintzaren baterako, dela laguntza produktu bat eskuratzeko, dela beharrezkoa duten zerbitzu bat jasotzeko.

Bigarrena. Betekizunak eta aplikatu beharreko araudia

2.1. Deialdi honetako laguntzak emateko, kontuan hartuko dira deialdi honetan ezarritako betekizunak eta baldintzak eta Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 8ko 20/2014 Foru Dekretuan ezarritakoak, foru dekretu horrek onartu baititu Gizarte Zerbitzuen Sailak eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde autonomoak (GOFE) ezintasun egoera aitortuta duten pertsonen ematen dizkieten banakako dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak (2014ko 45. ALHAO, apirilaren 23koa).

2.2. Foru dekretu arautzailearen 10. artikuluan xedatutakoaren arabera, dirulaguntza horiek jasotzeko gauditu ezin diren diru sarreraren gehieneko muga finkatu da 2016ko ekitaldirako; oinarri hauen 1. eranskinean daude zehaztuta muga horren zenbatekoak.

2.3. Deialdi honetan finantzatu ahalko dira 2015ko irailaren 5etik abenduaren 15era bitartean erositako edo gauzatutako laguntzak (bi egun horiek barne).

2.4. Honako idazpuru hauetan aipatzen diren 2. eranskineko 1. 4.b.1, 4.b.2, 5.a eta 5.c laguntzen kasuan, kasu horietarako beretarako beste organismo batzuek ezarritako laguntzen ordezko jotzen baitira, hara zeintzuk finantzatu diren deialdi honetan: 2015eko irailaren 5a eta 2016ko abenduaren 30aren bitartean (biak barne) igarotako denboran erosi edo gauzatutako laguntzak, baldin eta beste organismo horiek haiei buruzko ebazpena eman badute bosgarren oinarrian, 5.2 puntuan, aipatzen den eskabidea aurkezteko epearen barruan.

Hirugarrena. Aurrekontua eta gehieneko zenbateko osoa

Deialdi publiko honetan arautzen diren dirulaguntzak, 2. eranskinean jasotako zereendari jasotzen baitira, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen 2016ko aurrekontuko "80203.0321.480.00.07 norberaren autonomiarako programak" gastuko aurrekontu partidaren

kontura ordainduko dira, zeina, deialdi honetan, hasieran aurreikusitako lauhun eta berrogeita hiru mila zortziehun eta hirurogieta hamaika euro eta hamabi zentimoz (443.871,12 euro) hornitu baita, hargatik eragotzi gabe jasotako eskabideen arabera areagotzea.

Laugarrena. Emateko araubidea eta ebazpen kopurua

Dirulaguntza hauek lehiaren araubideari jarraituz emango dira, deialdi irekian, soil-soilik bata bestearen ondoko ebazpenak ematearren deialdiak hartzen duen aldian.

Banakako dirulaguntza emateko ebazpen bakoitzaren bidez, gehienez ere, deialdi honetako zazpigarren oinarria aplikatuz dagokion dirulaguntza zenbateko gehienezkoa emango zaio onuradun bakoitzari.

Bosgarrena. Eskaerak aurkeztea

5.1. Ezintasun egoera aitortuta duten pertsonentzako banakako laguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak onartu dituen foru dekretuan ezarritako moduan egin behar dira eskaerak, deialdi honen 029 eranskinean dagoen eredu normalizatua erabiliz.

5.2. Oinarri hauetan aurreikusitako dirulaguntzetarako eskabideen aurkezpen orokorreko epea, iragarkia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean irekiko da, eta 2016ko irailaren 16an amaituko da, egun hori barne. Honako idazpuru hauetan aipatzen diren 2. eranskineko 1. 4.b.1, 4.b.2, 5.a eta 5.c laguntzen kasuan, beste organismo batzuek kasu horietarako beretarako ezarritakoen ordezkotzat jotzen dira, eta, kasu horietarako, 2016ko abenduaren 30a izango da aipatu den dokumentazioa aurkezteko azken eguna.

5.3. Deialdi honen 2. eranskineko 6. puntuan aipatzen diren arreta espezializaturako laguntzen kasuan, eskabide bat aurkeztuko da Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Balorazio Atal Teknikoko Arreta Goiztiarreko Zerbitzuaren preskripzio bakoitzeko.

5.4. Honako idazpuru hauetan aipatzen diren 2. eranskineko 1. 4.b.1, 4.b.2, 5.a eta 5.c laguntzen kasuan, beste organismo batzuek kasu horietarako beretarako ezarritakoen ordezkotzat jotzen baitira, eskabidearekin batera aurkeztu beharko dira beste organismo horiek emandako dirulaguntzak esleitzeko emandako ebazpenak.

Seigarrena. Diruz lagundu daitezkeen gastuak

Deialdi honetan diruz lagundu daitezkeen gastuak 2. eranskinean jasotakoak dira, "Diruz lagundu daitezkeen laguntzen katalogoa eta berariazko betekizunak" izenburukoan, hain zuzen.

Zazpigarrena. Dirulaguntzaren zenbatekoa zehaztea eta haren mugak

7.1. Dirulaguntzaren zenbatekoa deialdi honen 1., 2. eta 3. eranskinetan ezartzen den moduan zehaztuko da.

7.2. Foru dekretu arautzailearen 19.5 artikuluan xedatutakoari jarraituz, oinarri hauen 3. eranskinean zehazten den gehieneko zenbatekoa emango da laguntza mota bakoitzerako.

Inolaz ere ez da emango eskatutakoaren baliokide diren produktuen merkatuko batez besteko prezioa baino gehiago.

7.3. Honako idazpuru hauetan aipatzen diren 2. eranskineko 1. 4.b.1, 4.b.2, 5.a eta 5.c laguntzen kasuan, beste organismo batzuek kasu horietarako beretarako ezarritakoen ordezkotzat joko dira.

7.4. Halaber, 20/2014 Foru Dekretuaren 19.6 artikuluan ezarrita dagoenez, bakarka eskatzen den laguntzaren edo ekintzaren aurrekontua gutxienez hogeita (20,00) eurokoa izan behar da.

7.5. Baldin eta, deialdi honetan aurreikusitako irizpideak aplikatu ondoren, ez bada izendatu nahikoa diru deialdi honen eranskinen arabera kalkulaturako laguntzen zenbatekoari aurre egiteko, aukera izango da zenbateko horiek proportzionalki murrizteko, betiere aurrekontuan eskuragarri diren baliabideen mugaraino.

Zortzigarrena. Eskaeren balorazioa. Prozeduraren antolamendua eta instrukzioa

1. Ezinduen arloko idazkaritza teknikoko zuzendariordeak du prozedura ordenatzeko eta izapidetzeko eskumena, eta berak igorriko dio ebazpen proposamena Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen ebazpena emateko eskumena duen organoari.

2. Organo horrek egingo ditu, ofizioz, eskatzaileek aurkeztutako datuak determinatu, ezagutu eta egiaztatzeko beharrezko irizten dizkion jardun guztiak.

3. Jasotako eskaera guztiak aztertzeko, balorazio batzordea eratuko da, honela osatua: Ezinduen Arloko zuzendariorde teknikoak, Balorazio Atal Teknikoaren arduraduna, Autonomia Pertsonaleko Zentroaren arduraduna, arloko koordinatzaile soziala eta zuzendariordetzak izendatzen dituen langileak. Batzorde horrek izango du dagozkion txosten teknikoak ebaluatu —, alegia, aldez aurretik Ezinduen Arloko zuzendariorde teknikoak izendatutako teknikariek sinatutako txostenak— eta ebazpen proposamenak egiteko ardura.

Bederatzigarrena. Eskaerak ebaztea

1. Behin aginduzko txosten teknikoak emanik, ebazparen zenbatekoaren arabera Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen eskumena duen organoak, kasurako eraturako balorazio batzordeak proposaturik, eta bat etorri Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen egitura eta funtzioanmenduari buruzko erregelamenduaren 25. artikuluan xedatutakoarekin (xedapen honen onartu zuen erregelamendua: Diputatuen Kontseiluaren 25/2012 Foru Dekretua, apirilaren 3koa), dagozkion ebazpenak emango ditu eskatutako dirulaguntzak onartzeko edo ukatzeko, araudian ezarritakoaren arabera.

Ebazpena emateko eta eskatzaileari jakinarazteko epea gehienez hiru hilabetekoa da, eskaerak jasotzen direnetik aurrera. Epe zenbaketa horretarako, ez da kontuan hartuko espedientea etenda egondako denbora, baldin eta etete horren kausak eskatzaileari egotzi ahal bazaizkio.

Aurreko idatz zatian aipatutako epea berriazko ebazpenik eman gabe igarotzen bada, adituko da eskaera ezetsi egin dela. Dena dela, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak berriazko ebazpena emateko betebeharra du.

2. Ebazpenaren aurka errekurtsoa jarri ahal izango da Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak 114tik 119. artikulura arte xedatutakoaren arabera (4/1999 Lege urtarrilaren 13koak emandako idazkeraren arabera), ebazpena emateko orduan indarrean den araudiaren arabera.

Hamargarrena. Ordaintzeko era eta justifikazioa

1. Laguntza ordaintzeko era eta jasotako laguntzaren justifikazioa bat etorriko dira Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 8ko 20/2014 Foru Dekretuaren 20. artikuluan ezarritakoarekin.

2. Gastua frogatzen duen faktura eta ordainketa frogatzen duen dokumentazioa hilabeteko epean aurkeztu behar dira, eskatutako laguntza emateko ebazpenaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita, edo, bestela, laguntza emateko ebazpenean bertan ezartzen den epean. Honako laguntza hauek arau horretatik salbuetsiko dira, ordea:

2.1. Obrak egiteko laguntzen kasuan eta dirulaguntzetarako eskabidea egin eta hari buruzko ebazpenaren jakinarazpena azaroaren 15etik aurrera jaso den kasuetan, agiriak aurkezteko muga-eguna abenduaren 15a izango da.

2.2. Honako idazpuru hauetan aipatzen diren 2. eranskineko 1. 4.b.1, 4.b.2, 5.a eta 5.c laguntzen kasuan, beste organismo batzuek kasu horietarako berretarako ezarritakoen ordezkotzat jotzen dira, eta, kasu horietarako, 2016ko abenduaren 30a izango da aipatu den dokumentazioa aurkezteko azken eguna.

2.3. Arreta espezializatuko tratamenduetarako laguntzen kasuan, lehen justifikazio bat aurkeztuko da, lehen justifikazio hori aurkeztu den dataren aurretik jasotako tratamenduei

buruzkoa, eta, ondoren, geroagoko justifikazioak, tratamenduaren gainerako aldietarako. Justifikazio partzialetako bakoitzak bide emango du, kasua bada, onartutako laguntza ordaintzeko, justifikazio bakoitzari dagokion zenbatekoa ordaintzeko, hain zuzen, deialdi honetan eta 20/2014 Dekretuan ezarritako mugak gainditu gabe. Justifikazio guztiak abenduaren 15a baino lehen aurkeztu beharko dira.

2.4. Laguntzen aurka errekurtsua aurkeztu denean, errekurtsua onesten duen ebazpenak gehieneko data zehaztu beharko du justifikazio agiriak aurkezteko, eta epea ezingo da izan inola ere hilabete baino luzeagoa, ebazpenaren jakianrazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

3. Salbuespen moduan, eta balorazio batzordeak aldeko txostena emanda, baimendu ahal izango da emandako laguntzaren konturako aurrerakina; horretarako, laguntza eskabidearen eredu normalizatuan eskatu beharko da aurrerakin hori. Konturako aurrerakina ematea, laguntza emateko ebazpenean bertan jasoko da. Konturako aurrerakina justifikatzeko epea hilabetekoa izango da, hura benetan ordaintzen den egunetik aurrera, salbu arreta espezializatuko tratamenduetarako laguntzetan eta laguntzari buruzko ebazpenaren jakinarazpena azaroaren 15etik aurrera jaso den kasuetan; kasu horietan, 2016ko abenduaren 15 izango da epe muga. Bestalde, honako idazpuru hauetan aipatzen diren 2. eranskineko 1. 4.b.1, 4.b.2, 5.a eta 5.c laguntzen kasuan, beste organismo batzuek kasu horietarako beretarako ezarritakoen ordezkotzat jotzen dira, eta, kasu horietarako, 2016ko abenduaren 30a izango da aipatu den dokumentazioa aurkezteko azken eguna.

Aurrerakin hori eman ahal izango da horretarako arrazoi nahiko eta ondo egiaztatuak daudenean, hala nola eskuratutako laguntza teknikoaren edo egindako obraren gehiegizko zenbatekoa, laguntza eskuratzeko edo obra egiteko presa, mendetasun graduan izandako aldatetarik eta abar., behin eskatzaileari dagokion gizarte langileak, Ezinduen Arloko gizarte koordinatzaileak edo dena delako espedienteari buruz txosten teknikoa emateko eskumena duen teknikariak aurrerakin hori emateko beharrezana baloraturik. Azken batean, balorazio batzordeak ebatziko du konturako aurrerakina bidezkoa den ala ez.

4. Laguntzak onuradunari edo, hala dagokionean, onuradunaren tutoreari, legezko ordezkariari edo egitatezko zaintzaileari ordainduko zaizkio. Laguntza ekonomiko baterako eskubidea aitortzean badatza laguntza, onuradunak, beraren tutoreak, legezko ordezkariak edo egitatezko zaintzaileak eskatu ahal izango du zuzenean enpresa hornitzaileari ordaintzeko, eta eskaera laguntza eskatzeko eredu normalizatu baliatu beharko du horretarako. Salbuespen moduan, eta balorazio batzordeak aldeko txostena emanda, eskatutako zuzeneko ordainketa baimenduko da.

Hamaikagarrena. Azken klausula

Deialdi honen oinarriak arau hauen mende egongo dira erabat: 3/1997 Foru Araua, otsailaren 7koa, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntza eta transferentziena; 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, dirulaguntzena; Diputatuen Kontseiluaren 20/2014 Foru Dekretua, apirilaren 8koa; eta aplikazio orokorrekoak diren gainerako guztiak.

Gasteiz, 2016ko irailaren 15a

Gizarte Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluko lehendakaria
BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ

1. ERANSKINA

Familiaren diru sarrerren mugak, ezinduentzako banakako laguntzak jasotzeko gainditu ezingo direnak, eta diruz laguntzeko moduko gehieneko ehunekoa, laguntza mota bakoitzean gehienez eman daitezkeen zenbatekoen gainean.

FAMILI UNITATEA		FAMILI UNITATEA		FAMILI UNITATEA		FAMILI UNITATEA		FAMILI UNITATEA		FAMILI UNITATEA	
KIDE 1		2 KIDE		3 KIDE		4 KIDE		5 KIDE		6 KIDE EDO GEHIAGO	
EUROAK	%	EUROAK	%	EUROAK	%	EUROAK	%	EUROAK	%	EUROAK	%
17.804	100	26.706	100	33.381	100	38.388	100	42.228	100	46.450	100
18.249	95	27.372	95	34.216	95	39.384	95	43.283	95	47.611	95
18.704	90	28.056	90	35.072	90	40.332	90	44.365	90	48.801	90
19.172	85	28.759	85	35.947	85	41.340	85	45.473	85	50.021	85
19.651	80	29.478	80	36.846	80	42.373	80	46.611	80	51.272	80
20.143	75	30.214	75	37.768	75	43.433	75	47.777	75	52.554	75
20.646	70	30.969	70	38.712	70	44.519	70	48.970	70	53.867	70
21.162	65	31.744	65	39.680	65	45.632	65	50.195	65	55.214	65
21.692	60	32.537	60	40.672	60	46.772	60	51.450	60	56.594	60
22.235	55	33.350	55	41.688	55	47.941	55	52.736	55	58.009	55
22.790	50	34.185	50	42.731	50	49.140	50	54.054	50	59.460	50
23.359	45	35.040	45	43.799	45	50.368	45	55.406	45	60.946	45
23.943	40	35.915	40	44.894	40	51.628	40	56.791	40	62.470	40
24.542	35	36.813	35	46.016	35	52.919	35	58.210	35	64.032	35
25.156	30	37.734	30	47.167	30	54.242	30	59.666	30	65.633	30
25.785	25	38.677	25	48.345	25	55.597	25	61.157	25	67.272	25
26.429	20	39.644	20	49.554	20	56.978	20	62.686	20	68.954	20
27.090	15	40.635	15	50.792	15	58.412	15	64.253	15	70.679	15
27.768	10	41.650	10	52.062	10	59.873	10	65.859	10	72.445	10
28.462	5	42.691	5	53.364	5	61.369	5	67.506	5	74.257	5
28.462	0	42.691	0	53.364	0	61.369	0	67.506	0	74.257	0

Familia unitatean, eskatzaile onuradunaz gain, ehuneko 65eko edo gehiagoko ezintasun gradua duen beste pertsona bat bizi bada, familiako kide bat gehiago kontatuko da lehen aipatutako diru sarrerren mugak ezartzeko orduan.

Ezinduentzako banakako dirulaguntzak esleitzeko familiaren diru sarreretan gainditu ezin diren muga taula hau ez da aplikatuko deialdi honetako 2. eranskinetako 6. atalean xedatzen diren laguntzen kasuan.

2. ERANSKINA

Diruz lagundu daitezkeen laguntzen katalogoa eta betekizun espezifikoak.

Oro har, katalogo honetan ageri diren laguntzak jaso ahal izateko, beharrezkoa da aurreko bost urteetan ez jaso izana laguntzarik kontzeptu horregatik beragatik eta beharrian berari erantzuteko, salbu berariaz beste epe bat ezarrita duten laguntzak.

Betekizunen artean mendetasun egoeraren baloraziorako baremoa (174/2011 Errege Dekretua, otsailaren 11koa) aplikatzearekin lotutako irizpideak badaude, jarduera negatiboa kontuan hartuko da baldin eta eskatzaileak laguntzarako produkturik ez badu eta produktu horiek erabilita autonomia pertsonal handiagoa lortzeko aukera badu.

1. Etxebizitzan irisgarritasuna lortzeko laguntzak.

Oztopo arkitektonikoak ezabatzeko eta etxebizitzaren egokitze funtzionalerako dirulaguntzak eskatzen dituen pertsonak kontzeptu horregatik beragatik dirulaguntzak ematen dituzten beste

erakunde publiko eta pribatu batzuen ebazpenak aurkeztu beharko dituzte, dirulaguntza esleitzekoak, dirulaguntza hau gainerako dirulaguntzen ordeko izateagatik. Baldin eta dirulaguntzak eskatzen dituen pertsonak ez baditu betetzen beste dirulaguntza horiek eskuratzeko eskubidea ematen duten betekizunak, zinpeko aitorpena eman beharko du hori egiaztatzeko; zinpeko aitorpen horren xehetasunak, bestalde, teknikari eskudunek egiaztatuko dituzte, eta txostena emango dute horri buruz.

1.a) Oztopo arkitektonikoak kentzea:

Sarbideetan: Oztopoak kentzea bide publikorako sarbidean; oztopoak kentzea atarian (arrapala, altxagailua, igogailua zero kotara jaistea).

Bide publikorako sarbideetan oztopoak kentzeko laguntzak jaso ahal izateko, eskatzaileak gutxienez 7 puntu lortu beharko ditu mugikortasun arazoak zehazteko baremoan (1971/1999 Errege Dekretua, III. eranskina).

Eskaileran: eskudelak, eskailerak gainditzeko plataformak eta igogailuak jartzea. Eskatzaileak gutxienez 7 puntu lortu beharko ditu mugikortasun arazoak zehazteko baremoan (1971/1999 Errege Dekretua, III. eranskina). Eskailerak gainditzeko eramangarria. Eskatzaileak gutxienez 12 puntu lortu beharko ditu mugikortasun arazoak zehazteko baremoan (1971/1999 ED, III. eranskina).

Igogailuaren instalazioa eta aldaketak: atek eta kabina aldatzea.

Igogailua ipintzeko eta bertan aldaketak egiteko laguntza jasotzeko, eskatzaileak gutxienez 7 puntu lortu beharko ditu mugikortasun arazoak zehazteko baremoan (1971/1999 Errege Dekretua, III. eranskina) eta/edo, bestela, bihotzeko edo arnasbideetako gaixotasunak eragindako ehuneko 33ko ezintasun gradua edo handiagoa eduki (1971/1999 Errege Dekretua).

1.b) Etxebizitzaren egokitzapen funtzionala: atek, pasabideak, leihoak, gelak, komunak aldatzea. Etxebizitzaren egokitzapen funtzionalerako laguntza teknikoen kasuan, eskatzaileak ezintasun psikologikoa badu, ehuneko 65eko edo hortik gorako ezintasun gradua eduki behar du onartuta (1971/1999 Errege Dekretua) eta mugikortasuna portaeraren alterazioen ondorioz baldintzatuta eduki behar du.

Arkitektura oztopoak kentzeko eta etxearen egokitzapen funtzionalerako laguntzak eman ahal izateko, beharrezkoa da ezinduak etxebizitza okupatu ondoren agertu izana beharrezkoa. Kanpoan geratzen dira lehenengo okupazioan etxe egokitu gisa sailkatuta zeudenetan egiteko obrak. Era berean, egin beharreko jarduketek indarrean dauden arauetan ezarritako irisgarritasun baldintza teknikoak bete beharko dituzte.

Etxearen irisgarritasuna eta egokitzapena helburu duten obretarako laguntzak eskuratu ahal izateko, beharrezkoa da aurreko bederatzi urteetan ez jaso izana laguntzarik kontzeptu beragatik eta beharrezkoa bera asetzeko, salbu eskatzailearen egoera kliniko-funtzionala aldatzeko mediku agindua eman bada.

2. Etxeko jarduerak egiten laguntzeko produktuak.

2.a) Janariak eta edariak prestatzen laguntzeko produktuak.

2.b) Jaten eta edaten laguntzeko produktuak.

2.c) Garbitzen laguntzeko produktuak.

Laguntza horiek jaso ahal izateko, eskatzaileek jarduera negatiboa aurkeztu behar dute MBBan (mendetasun egoera baloratzeko baremoan) jarduera hauetarako: "jatea eta edatea" (2.b) eta "etxeko lanak egitea" (2.a eta 2.c)

3. Zaintza eta babes pertsonalean laguntzeko produktuak.

3.a) Janzten eta eranzten laguntzeko produktuak.

- 3.b) Komuneko funtzioetan laguntzeko produktuak.
- 3.c) Garbitzen, dutxatzen eta bainatzen laguntzeko produktuak.
- 3.d) Manikura eta pedikura egiten laguntzeko produktuak.
- 3.e) Ilea zaintzen laguntzeko produktuak.

Laguntza horiek jaso ahal izateko, eskatzaileek jarduera negatiboa izan behar dute MBBan (mendetasun egoera baloratzeko baremoan) honako jarduera hauetarako: "janzteia" (3.a), "garbitzea" eta "beste zainketa pertsonal batzuk egitea" (3.b, 3.c, 3.d eta 3.e).

4. Komunikazioan eta informazioan laguntzeko produktuak.

4.a) Ikusten laguntzeko produktuak.

4.a.1-- Betaurrekoak erostea.

4.a.2-- Lentillak erostea. Erabili eta botatzeko lentillen kasuan, behin baino gehiagotan egin daiteke eskaera, berritzeko ezarritako epearen barruan, deialdi honen 3. eranskinean agertzen den diruz laguntzeko moduko gehieneko zenbatekora iritsi arte.

Betaurrekoak erosteko laguntza eta lentillak erostekoa ez dira bateragarriak, nola eta ez dagoen medikuaren berriazko preskripzioa biak erabili beharra justifikatzen duena.

Laguntza eskuratu ahal izateko, aldeko txosten teknikoa behar da, eta ehuneko 33ko edo gehiagoko ezintasun gradua (1971/1999 Errege Dekretua), ikusmenaren eta horrekin zerikusia duten funtzioen urritasuna dela eta (Funtzionamenduaren Nazioarteko Saillkapena).

4.a.3-- Ikusten laguntzeko beste produktu batzuk

Iragazkiak, leiarrak, lupak eta teleskopioak.

Laguntza eskuratu ahal izateko, aldeko txosten teknikoa behar da, eta ehuneko 33ko edo gehiagoko ezintasun gradua (1971/1999 Errege Dekretua), ikusmenaren eta horrekin zerikusia duten funtzioen urritasuna dela eta (Funtzionamenduaren Nazioarteko Saillkapena).

4.a.4-- Irudia handitzeko bideo sistemak

Laguntza eskuratu ahal izateko, aldeko txosten teknikoa behar da, eta ehuneko 33ko edo gehiagoko ezintasun gradua (1971/1999 Errege Dekretua), ikusmenaren eta horrekin zerikusia duten funtzioen urritasuna dela eta (Funtzionamenduaren Nazioarteko Saillkapena).

4.a) atal honetan aurreikusten diren laguntzak jaso ahal izateko, beharrezkoa da aurreko bi (2) deialdien epearen barruan laguntzarik ez jaso izana kontzeptu beragatik eta beharrian berari erantzuteko, salbu eskatzailearen egoera kliniko-funtzionaleko egoera aldatzeagatik medikuak agindu berria ematen duenean.

4.b) Entzuten laguntzeko produktuak

4.b. 1. Audifonoak erostea, moldeak barne.

Audifonoak erosteko, 16 urte baino gutxiagoko umeentzat bada, Osakidetzak dirulaguntza esleitzeko emandako ebazpena aurkeztu beharko du eskatzaileak, dirulaguntza hau gainerako laguntzen ordezkia delako.

4.b.2. Audifonoak konpontzea, moldeak barne.

Audifonoak konpontzeko, 16 urte baino gutxiagoko umeentzat bada, Osakidetzak dirulaguntza esleitzeko emandako ebazpena aurkeztu beharko du eskatzaileak, dirulaguntza hori gainerako laguntzen ordezkia delako.

4.b.3. Entzuten laguntzeko produktuen osagarriak. Audio konexioak (indukzio, irrati maiztasun edo infragorritzko sistemak).

Entzuten laguntzeko produktuak esleitzeko, beharrezkoa da txosten tekniko bat aldekoa eta ezintasunaren maila ehuneko 33koa edo handiagoa izatea (1971/1999), komunikazio-entzute jardueretan parte hartzea mugatzen duen entzuteko eginkizunaren urritasunari dagokionez.

44.b.1. eta 4.b.3. ataletan aurreikusten diren laguntzak eskuratzeko, beharrezkoa da aurreko bi (2) deialdietan ez jaso izana laguntzarik kontzeptu beragatik eta beharizan berari erantzuteko, salbu eskatzeaileraren egoera kliniko-funtzionaleko egoeran protesia doituta konpondu ezin diren aldaketak gertatzeagatik mediku agindu berria eman denean.

4.b.2. ataletan jasotzen diren laguntzak eskuratzeko, beharrezkoa izango da aldeztu aurretik enpresa hornitzaileak aurreikusitako berme epea amaitu izana.

4.c) Aurrez aurre komunikatzen laguntzeko produktuak

Laguntza eskuratu ahal izateko, aldeko txosten teknikoa behar da, eta ehuneko 65eko edo gehiagoko ezintasun gradua (1971/1999 Errege Dekretua), komunikazio-produkzio jardueretan eta elkarrizketetan ahoz eta idatziz parte hartzea eragozten duten eta komunikaziorako aparatu eta teknikak erabiltzera behartzen duten urritasunei dagokionez (FNZ - Funtzionamenduaren Nazioarteko Sailkapena).

4.d) Laguntza produktuak telefonoz deitzeko edota telefonoaren ordezkoko komunikazioa errazteko.

Laguntza eskuratu ahal izateko, aldeko txosten teknikoa behar da, eta ehuneko 33ko edo gehiagoko ezintasun gradua, entzumen ezintasuna bada, edo ehuneko 65eko edo gehiagoko ezintasun gradua, ikusmen ezintasuna bada (1971/1999 Errege Dekretua), komunikazio-produkzio jardueretan eta elkarrizketetan ahoz eta idatziz parte hartzea eragozten duten eta komunikaziorako aparatu eta teknikak erabiltzera behartzen duten urritasunei dagokionez.

4.e) Alarma, ohar eta seinaleetarako laguntza produktuak.

4.e.1. Dei abisueterako eta alarmarako sistema.

Laguntza jaso ahal izateko, aldeko txosten teknikoa behar da, eta honako baldintza hauetako bat, gutxienez, bete behar da:

* Ehuneko 75eko edo hortik gorako ezintasun gradua (1971/1999 Errege Dekretua), ikusmenaren eta horrekin zerikusia duten funtzioen urritasuna dela eta (FNZ - Funtzionamenduaren Nazioarteko Sailkapena).

* Ehuneko 33ko edo hortik gorako ezintasun gradua (1971/1999 Errege Dekretua), entzumen urritasuna dela eta (FNZ - Funtzionamenduaren Nazioarteko Sailkapena).

Kokagailuen kasuan, erasan neurokognitiboa eta aldeko txosten teknikoa behar dira.

4.e.2. Abisu eta seinaleetarako laguntza produktuak.

— Buruak, likornioak, erakusleak, sakagailuak edo kommutadoreak, euskarriak, armazoiak eta tekla blokeagailuak, besaurrea bermatzekoak.

Laguntza eskuratu ahal izateko, aldeko txosten teknikoa behar da, eta ehuneko 65eko edo hortik gorako ezintasun gradua (1971/1999 Errege Dekretua), objektuak jaso eta eramateko jarduerak edota eskuaren eta besaurrearen erabilera mugatzen dituen (FNZ - Funtzionamenduaren Nazioarteko Sailkapena).

4.f.) Irakurtzen eta idazten laguntzeko produktuak

4.f.1. Orri pasagailua erostea.

Laguntza eskuratu ahal izateko, aldeko txosten teknikoa behar da, eta ehuneko 75eko edo hortik gorako ezintasun gradua (1971/1999 Errege Dekretua), objektuak jaso eta eramateko jarduerak edota eskuaren eta besaurrearen erabilera mugatzen dituen (FNZ

- Funtzionamenduaren Nazioarteko Sailkapena). Produktu honetarako laguntza eta ordenagailurako laguntza bateraezinak dira.

4.f.2. Kantoreak erostea.

Laguntza eskuratu ahal izateko, aldeko txosten teknikoa behar da, eta ehuneko 65eko edo hortik gorako ezintasun gradua (1971/1999 Errege Dekretua), objektuak jaso eta eramateko jarduerak edota eskuaren eta besaurrearen erabilera mugatzen dituen (FNZ - Funtzionamenduaren Nazioarteko Sailkapena).

4.f.3. Braille sisteman idazteko tresnak.

Braille sisteman idazteko makinak eta sistema horretan oharak hartzeko tresna eraman-garriak.

Laguntza eskuratu ahal izateko, aldeko txosten teknikoa behar da, eta ehuneko 75eko edo hortik gorako ezintasun gradua (1971/1999 Errege Dekretua), ikusmenaren eta horrekin zerikusia duten funtzioen urritasunari dagokionez (Funtzionamenduaren Nazioarteko Sailkapena).

4.g) Ordenagailuak

4.g.1. Ordenagailuak, softwarea eta sarrera-irteera gailu arruntak barne.

Horiek erosteko laguntzak eman ahal izango dira, aurrez aldeko txosten teknikoa eginda, baldin eta eskatzaileak ahozko hizkuntzarik ez badu edo eskuz idaztea eragozten dion ezintasuna badu, gailu horiek erabiltzeko gaitasun nahikoa izanik.

Eskatzaileak ehuneko 65eko edo hortik gorako ezintasun gradua eduki beharko du (1971/1999 Errege Dekretua), ahozko eta idatzizko komunikazio-produkzio jardueretan parte hartzeko aukera mugatzen duten urritasunei dagokienez (Funtzionamenduaren Nazioarteko Sailkapena), eta beharrezkoa da, halaber, haren adimen funtzioak ordenagailua erabiltzeko egokiak izatea eta eskatzaileak ordenagailua nahiko ondo erabiltzen jakitea.

4.g.2. Softwarea eta sarrera-irteera gailu bereziak

Horiek erosteko laguntzak eman ahal izango dira, aurrez aldeko txosten teknikoa eginda, baldin eta eskatzaileak ahozko hizkuntzarik ez badu edo idaztea eragozten dion ezintasuna badu, gailu horiek erabiltzeko gaitasun nahikoa izanik.

Eskatzaileak ehuneko 65eko edo hortik gorako ezintasun gradua eduki beharko du (1971/1999 Errege Dekretua), ahozko eta idatzizko komunikazio-produkzio jardueretan parte hartzeko aukera mugatzen duten urritasunei dagokienez (Funtzionamenduaren Nazioarteko Sailkapena), eta beharrezkoa da, halaber, haren adimen funtzioak ordenagailua erabiltzeko egokiak izatea eta eskatzaileak ordenagailua nahiko ondo erabiltzen jakitea.

4.h). Ingurunea kontrolatzen laguntzeko produktuak.

Laguntza eskuratu ahal izateko, aldeko txosten teknikoa behar da, eta ehuneko 75eko edo hortik gorako ezintasun gradua (1971/1999 Errege Dekretua), objektuak eraman, mugitu eta erabili behar diren jardueretan parte hartzeko aukera mugatzen duena (Funtzionamenduaren Nazioarteko Sailkapena). Laguntzeko produktu horien xede bakarra pertsonaren autonomia sustatzea izango da; bateraezinak izango dira administrazio publiko honetatik edo beste batzuetatik helburu bererako jaso daitezkeen beste prestazio edo zerbitzu batzuekin.

5. Mugikortasun pertsonalean laguntzeko produktuak eta lekualdatzeko gaitasuna handitzen duten laguntzak.

5.a) Gurpil aulkiak

Gurpil aulki eskuz eragitekoak eta gurpil aulki elektrikoak erosteko, Osakidetza dirulaguntza esleitzeko emandako ebazpena aurkeztu beharko du eskatzaileak, laguntza hori gainerakoen ordezkotzat izateagatik.

5.a.1. Eskuz eragiteko gurpil aulkia erostea.

Laguntza jaso ahal izateko, aldeko txosten teknikoa behar da, eta honako baldintza hauetako bat, gutxienez, bete behar da:

* IV. motako ezintasun gradua edo goragokoa izatea (1971/1999 Errege Dekretua), ibiltzeko eta mugitzeko jardueretan parte hartzeko aukera mugatzen duena (Funtzionamenduaren Nazioarteko Saillapena), laguntzarik gabe oinez ibiltzeko ezintasun iraunkorarekin bat datorrena.

* Mugitzeko zailtasunak zehazten dituen baremoan "A" irizpen positiboa jasotzea (1971/1999 Errege Dekretuaren III. eranskina).

5.a.2. Gurpil aulki elektrikoa erostea.

Gurpil aulki elektrikoa erosteko laguntza jaso ahal izateko, aldeko txosten teknikoa behar da, eta ehuneko 75eko edo hortik gorako ezintasun gradua (1971/1999 Errege Dekretua), ibiltzeko eta mugitzeko eta objektuak eraman, mugitu eta erabiltzeko aukera mugatzen duena (Funtzionamenduaren Nazioarteko Saillapena), laguntzarik gabe oinez ibiltzeko ezintasun iraunkorarekin eta goiko gorputz adarrekin eskuzko gurpil aulkia mugiarazteko ezintasun funtzional iraunkorarekin bat datorrena; beharrezkoa da, halaber, adimen funtzioak eta ikusmen funtzioak egokiak izatea gurpil aulki elektrikoa ondo kontrolatzeko, erabiltzailea bera edo beste inor arriskuan jarri gabe.

5.a.3. Baskulazio aukera; 5.a.1ekin eta 5.a.rekin bateragarria.

5.a.4. Eserlekua igotzeko aukera; 5.a.2.rekin bateragarria.

5.a.5. Kokots kontroleko aukera; 5.a. rekin bateragarria.

5.a.6. Posizio sistemaren aukera; 5.a.1ekin eta 5.a.2rekin bateragarria.

5.a.7. Zutitzeko sistemaren aukera; 5.a.1ekin eta 5.a.2rekin bateragarria.

5.a.8. Gurpil aulkian dagoena lotzeko/atxikitze sistemak; 5.a.1ekin eta 5.a.2rekin bateragarria.

Posizio, baskulazio eta zutitze sistemetarako laguntza eskuratu ahal izateko, mugitzeko zailtasunak zehazten dituen baremoan "A" irizpen positiboa jasotzeaz gainera, IV. motako ezintasuna eduki behar da, "gorputzaren posizioa aldatzeko eta mantentzeko" jardueretan parte hartzeko aukera mugatzen duena (Funtzionamenduaren Nazioarteko Saillapena).

Gurpil aulkia erosteko laguntzak jaso ahal izateko, beharrezkoa izango da aurreko bi (2) deialdietan ez jaso izana laguntzarik kontzeptu beragatik eta beharrian berari erantzuteko, salbu eskatzailearen egoera kliniko-funzionala aldatu dela-eta osasun publikoko sareko medikuak agindu berria ematen duenean.

5.b) Scooter-a erostea (3 edo 4 gurpilekoa)

Laguntza jaso ahal izateko, aldeko txosten teknikoa behar da, eta honako baldintza hauetako bat, gutxienez, bete behar da:

* IV. motako ezintasun gradua edo handiagoa izatea (1971/1999 Errege Dekretua), ibiltzeko eta mugitzeko jardueretan parte hartzeko aukera mugatzen duena (Funtzionamenduaren Nazioarteko Saillapena); beharrezkoa da, halaber, adimen funtzioak eta ikusmen funtzioak egokiak izatea scooter-a ondo kontrolatzeko, erabiltzailea bera edo beste inor arriskuan jarri gabe.

* Mugitzeko zailtasunak zehazten dituen baremoan gutxienez 12 puntuko irizpen positiboa jasotzea (1971/1999 Errege Dekretuaren III. eranskina).

5.b. atal honetan aurreikusten diren laguntzak jaso ahal izateko, beharrezkoa da aurreko lau (4) deialdietan laguntzarik ez jaso izana kontzeptu beragatik eta beharrian berari erantzuteko,

salbu eskatzailearen egoera kliniko-funtzionaleko egoera aldatzeagatik medikuak agindu berria ematen duenean.

Scooter-a, gurpil aulki elektrikoa eta handbike elektrikoa eskuratzeko laguntzak bateraezinak dira elkarrekin, eta horietako bat eskuratzen denetik bost urte igaro arte ezin izango da beste bat eskuratzeko laguntzarik jaso.

5.c. Gurpil aulkia konpontzea

Gurpil aulki eskuz eragitekoak eta gurpil aulki elektrikoak konpontzeko, Osakidetzak dirulaguntza esleitzeko emandako ebazpena aurkeztu beharko du eskatzaileak, laguntza hori gainerakoen ordezkotzat izateagatik.

Gurpil aulkia konpontzearen barruan sartzen da haren elementuetako edozein aldatzea berritzeko eperik gabe, betiere enpresa hornitzeaileak aurreikusitako bermearen epea amaitu bada.

5.d. Propulzio elektrikorako gailua, eskuzko gurpil aukietarako

Eskuzko aukiarik laguntza elektrikoa emateko tresna erosteko, zainzaile nagusiak agiri bidez frogatu behar du laguntzarik gabe aukia mugitzea galarazten dioten muga organiko-funtzionalak dituela.

Laguntza produktu hori teknikoki bidezko joko da baldin eta pertsona ezindua aukia elektrikoa erosteko laguntzarako eskubidea izateko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen baditu, "aulkia erabiltzeko ikusmen edo adimen kontrol nahikoa izatea" izan ezik, eta agiri bidez frogatzen bada zainzaile nagusiak muga organiko-funtzionalak dituela, gutxienez ere ehuneko 33ko ezintasun moderatua eragiten diotenak eskuzko aukia mugitzearekin zerikusia duten funtzioetan (1971/1999 Errege Dekretua), edo, bestela, ezindua aukia elektrikorako eskubidea izateko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen baditu eta zainzaile nagusiak 70 urte edo gehiago baditu.

5.d.1. Propulzio gailu eskuzkoa edo elektrikoa, erabiltzaileak berak mugitzen duen gurpil aukirako.

Eskuzko propulzio gailua erosteko –handbikea barne– laguntza jaso ahal izateko, aldeko txosten tekniko behar da, eta honako baldintza hauetako bat, gutxienez, bete behar da:

* ezintasun maila ehuneko 65 edo handiagoa izatea (1971/1999 Errege Dekretua), ibiltzeko eta mugitzeko jardueretan parte hartzeko aukera mugatzen duena (Funtzionamenduaren Nazioarteko Sailkapena), laguntzarik gabe oinez ibiltzeko ezintasun iraunkorrari dagokiona.

* Mugitzeko zailtasunak zehazten dituen baremoan "A" irizpen positiboa jasotzea (1971/1999 Errege Dekretuaren III. eranskina).

Kasu batean nahiz bestean, pertsonak besoetan potentzia muskular nahikoa izan beharko du eskatutako laguntzari eragiteko.

Propulzio gailu elektrikoa erosteko laguntza jaso ahal izateko, handbike elektrikoa barne, aldeko txosten tekniko behar da, eta ehuneko 75eko edo hortik gorako ezintasun gradua (1971/1999 Errege Dekretua), ibiltzeko eta mugitzeko eta objektuak eraman, mugitu eta erabiltzeko aukera mugatzen duena (Funtzionamenduaren Nazioarteko Sailkapena), honi dagokiona: laguntzarik gabe oinez ibiltzeko ezintasun iraunkorra eta goiko gorputz adarrekin eskuzko gurpil aulkia mugiarazteko ezintasun funtzional iraunkorra; beharrezkoa da, halaber, adimen funtzioak eta ikusmen funtzioak egokiak izatea gurpil aulki elektrikoa ondo kontrolatzeko, erabiltzailea bera edo beste inor arriskuan jarri gabe. Eskatzaileak ikusizko kontrol nahikoa duela egiaztatzeko, txosten oftalmologiko ofiziala aurkeztu beharko du, osasun publikoko sareko medikuak emana, ikusmen eremuaren testa eta IZB ere jasotzen dituela.

Propultsio gailu elektrikoa edo handbike elektrikoa erosteko laguntzak bateraezinak dira Scooter-a eta gurpil aulki elektrikoa erostekoarekin, eta bat eskuratzen denetik lau (4) urte igaro arte ezin izango da beste bat erosteko laguntzarik jaso.

Ez dira inolaz ere lagunduko deialdi honetan kirola egiteko handbike independente edo modularrak.

Atal honetan aurreikusten diren laguntzak jaso ahal izateko ("eskuz eragiteko gurpil aulkietarako propultsio unitateak"), beharrezkoa da aurreko lau (4) urteko epearen barruan laguntzarik ez jaso izana kontzeptu beragatik eta beharrian berari erantzuteko, salbu eskatzailearen egoera kliniko-funtzionaleko egoera aldatzeagatik medikuak agindu berria ematen duenean.

5.e. Ibilgailuak egokitzea.

1) Gidatzeko egokitzapenak:

5.e.1. Motorrari eragiteko egokitzapenak.

5.e.2. Azeleragailurako egokitzapenak.

5.e) 21. Balaztarako egokitzapenak.

5.e.3. Enbragerako eta aldagailurako egokitzapenak.

5.e.4. Esku balaztari eragiteko egokitzapenak.

5.e.5. Direkzio sistemari eragiteko egokitzapenak.

5.e.6. Bigarren mailako funtzioei eragiteko egokitzapenak.

2) Segurtasun elementuak: uhalak, ainguraguneak, buru euskarriak.

5.e.7. Segurtasun uhalak eta arnesak erostea.

5.e.8. Berariaz diseinatutako eserlekuak eta kuxinak erostea.

3) Ibilgailuan sartzeko egokitzapenak: arrapalak, plataforma jasotzaileak eta ibilgailuetan sartzeko garabiak.

5.e.9. Pertsonak autoetan sartzeko garabiak erostea.

5.e.10. Gurpil aulkian autora igotzeko plataforma.

5.e.11. Arrapala tolesgarria erostea.

5.e.12. Gurpil aulkia autoaren gainean edo barruan jartzen laguntzeko produktua (PBE):

5.e.13. Gurpil aulkia autoan lotzeko ekipamendua.

5.e.14. Autoaren karrozeriaren egokitzapenak.

1) Gidatzeko egokitzapenak.

Eskatzailearen gidabaimenean berariaz ageri diren egokitzapenetarako soilik emango da dirulaguntza.

2) Segurtasun elementuak: uhalak, ainguraguneak, buru euskarriak.

Laguntza hauek jaso ahal izateko, mugitzeko zailtasunak zehazten dituen baremoan gutxienez 12 puntuko irizpen positiboa jaso behar da (1971/1999 Errege Dekretuaren III. eranskina)

3) Ibilgailuan sartzeko egokitzapenak: arrapalak, plataforma jasotzaileak eta ibilgailuetan sartzeko garabiak.

Laguntza hauek jaso ahal izateko, mugitzeko zailtasunak finkatzen dituen baremoan gutxienez 12 puntuko irizpen positiboa jasotzea (1971/1999 Errege Dekretuaren III. eranskina)

“Ibilgailuak egokitzea” izeneko atal honetan aurreikusten diren laguntzak jaso ahal izateko, beharrezkoa izango da aurreko bederatz (9) deialdietan laguntzarik jaso ez izana kontzeptu beragatik eta beharizan berari erantzuteko, behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik, salbu 5.e.1, 5.e.2., 5.e.3, 5.e.4, 5.e.5, 5.e.6. eta 5.d.21 ataletako kasuak, gidatzeko egokitzeak, zeinetan beharrezkoa izango baita laguntzarik jaso ez izana aurreko lau (4) deialdietan kontzeptu beragatik eta beharizan berari erantzuteko.

5.f. Gidabaimena lortzea edo birmoldatzea

Gidabaimena lortzeko edo birmoldatzeko laguntzak jaso ahal izateko, beharrezkoa izango da eskatzaileak gutxienez 7 puntu lortzea 1971/1999 Errege Dekretuan garraio bide kolektiboak erabiltzeko zailtasunak finkatzeko ezarritako baremoan.

Laguntza hori behin baino ez da emango.

5.g. Pertsonak jasotzeko, eramateko, lekualdatzeko eta atsedenerako laguntza produktuak.

5.g.1. Gurpil garabia erostea, zutitzeko garabia barne.

5.g.2. Horman, zoruan edo sabaian finkatzeko garabia erostea.

5.g.3. Lekualdatzen eta biratzen laguntzeko produktua. Lekualdatzeko diskoak, plataformak, uhalak, oholak eta eskalak, eta zutitzeko mekanismoa daukan aulki ergonomikoa.

5.g.1 eta 5.g.2 ataletan sartzen diren produktuak erosteko laguntzak jaso ahal izateko, ehuneko 75eko edo hortik gorako ezintasun gradua behar da, mugak izateagatik parte hartzeko “norberaren gorputza lekualdatzeko” jardueretan, eta/edo jarduera negatiboa SM laguntza mailarekin “gorputzaren posizioa aldatu eta mantentzeko” jardueraren pauso guztietan, “gorputzaren grabitate zentroa aldatzea etzanda egonik edo eserita egotea” jardueran izan ezik. 5.g.3 ataleko laguntza produktuak erosteko laguntza jaso ahal izateko, ehuneko 65eko edo hortik gorako ezintasun gradua izan behar da (1971/1999 Errege Dekretua).

5.g.3 ataleko laguntza produktuak erosteko laguntzak jaso ahal izateko, beharrezkoa izango da ehuneko 65eko ezintasuna edo handiagoa izatea, mugak izateagatik norberaren gorputza lekualdatzeko jardueretan parte hartzeko eta/edo jarduera negatiboa FP/SM laguntza mailarekin, gutxienez “gorputzaren posizioa aldatu eta mantentzea”: “aulki batean eserita egotetik zutik jartzera”, “zutik irautea eta zutik egotetik aulki batea jarrita egoera” jarduerako pausoetan.

5.g.4. Ohe artikulatua erostea

Teknikoki bidezko joko dira baldin eta pertsona ezinduak mendekotasun egoera aitortuta badu, edozein gradutakoa, eta ez bada gai ohean Funtzionamenduaren Nazioarteko Saillape-neko “gorputzaren posizioa aldatu, mantendu edo lekualdatzea” jarduerak egiteko, eta horietarako laguntza fisiko partziala, erabatekoa eta berezia behar badu. Teknikoki bidezko joko dira, halaber, baldin eta eskatzaileak IV. motako ezintasun larria eragiten dion gaixotasun kronikoren bat badu, FNS jarduerako zein muga arindu nahi den, horretan, 1971/1999 Errege Dekretuan honela definitzen delarik: sintomek, zeinuek edo ondorioek eguneroko bizitzako jarduerak (EBJ) gehienak egiteko murrizketa nabarmena edo ezintasuna eragiten diote, baina ez du laguntzarik behar bere burua zaintzekoetan.

Atal honetan aurreikusten diren laguntzak eskuratu ahal izateko, beharrezkoa da aurreko bederatz (9) deialdietan laguntzarik jaso ez izana kontzeptu beragatik eta beharizan berari erantzuteko, salbu behar bezala justifikatutako kasuetan eta balorazio batzordeak balorazio positiboa egin badu..

5.g.5. Ohe artikulatuaren aukerak: gurdi altxagarria, hesiak, trapezioa eta beste batzuk.

5.g.51- Ohe eskudelen aukera.

Laguntzak hauek jaso ahal izateko, beharrezkoa izango da ehuneko 75eko edo hortik gorako ezintasun gradua (1971/1999 Errege Dekretua), mugak izateagatik “gorputzaren posizioa aldatu

eta mantentzea” jardueran parte hartzeko, erori eta norberaren osotasuna kaltetzeko arrisku erantsiari dagozkionak, hauetakoren baten ondorioz: goiko funtzio neurologikoetako erasana, krisi komizial edo epileptiko larriak eta/edo Funtzionamenduaren Nazioarteko Sailkapeneko “gorputzaren posizioa aldatu edo mantentzea” jarduerarako laguntza fisiko erabatekoaren eta bereziaren beharra.

5.g.52. Norbere kasa altxatzeko oheari lotutako barren aukera.

Laguntza hauek jaso ahal izateko, beharrezkoa izango da gutxienez ehuneko 33ko ezintasuna arindu nahi den gabezia, zailtasunak izanik “gorputzaren posizioa aldatu eta mantentzea” jarduera egiteko.

5.g.53. Ohea altxatzeko aukera.

Laguntza hauek jaso ahal izateko, beharrezkoa izango da gutxienez ehuneko 75eko ezintasun gradua izatea, mugak izateagatik Funtzionamenduaren Nazioarteko Sailkapeneko “gorputzaren posizioa aldatu edo mantentzeko” jardueran parte hartzeko, eta jarduera negatiboa SM edo AE laguntza graduarekin “gorputzaren posizioa aldatu eta mantentzea” jarduerako pauso guztietan.

6. Laguntza espezializatua.

Garapenaren nahasmenduak dauzkaten edo edukitzeko arriskua duten umeentzat da, eta beharrezkoa da hala baloratu izana organo eskudunak, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 22ko 36/2014 Foru Dekretuaren I. tituluko III. kapituluan ezarritakoaren arabera. Dekretu horrek arautzen du mendetasun egoera aitortzeko, ezintasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura, bai eta, baldintza horiek emanez gero, Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura ere; Diputatuen Kontseiluaren 50/2014 eta 58/2014 foru dekretuen bidez aldatuta dago. Beharrezkoa da, gainera, fisioterapia, logopedia eta/edo erabateko estimulazioko zerbitzuen esku-hartzeren bat programatuta izan dezaten. Beharrezkoa izango da, orobat, arlo honetan, Euskal Autonomia erkidegoko arrreta goiztiarreko esku hartze integralari buruzko dekretuan (13/2016 Dekretua, otsailaren 2koa) xedatutakoa (EHAO, 45 zk., 2016ko martxoaren 7koa).

6.1. Diruz lagundu daitezkeen zerbitzuak:

6.1.a. Arreta goiztiarra: GOFetik kanpo jasotako fisioterapia, logopedia eta estimulazio orokorreko zerbitzuak, onuradunak ezin badu GOFek Gasteizen ematen duen zerbitzura jo.

6.1.b. (Ezabatua)

6.1.c. Garraioa: Arreta goiztiarreko zerbitzuaren onuradunaren bizitokia arreta espezializatua eman behar den udalerrri atal honetan aipatzen denetik kanpo dagoenean. Zerbitzuaren onuradunak eta laguntzaile batek onuraduna bizi den herriaren eta arreta eman behar zaion herriaren artean egiten dituzten joan-etorrien gastuak ere kontzeptu honetan sartu ahal izango dira. Garraio bide publikoa nahiz pribatua erabiltzeagatik ordainduko dira gastuak, eta doitu egingo dira zerbitzu arrazoiengatik zor diren kalte-ordainen arloan indarrean den araudian ezarritakoaren arabera.

7. Bestelako laguntza bereziak eta osagarriak

Aparteko kasu batzuetan, aurreko kapituluetan ezartzen eta tipifikatzen ez diren ekintzak edo laguntza bereziak ere finantzatu ahal izango dira, aurrez aldeko txosten tekniko eginda, eskatzailearen arreta, sustapen eta gizarteratze prozesurako onuragarri jotzen badira.

Katalogo honetan ez dira sartuko trebakuntza zentroaren edo lantokiaren ingurunerako berariaz bideratzen diren esku hartzeak edo laguntza produktuak.

Katalogo honetatik kanpo geratzen dira, halaber, erabilera eta lotutako kostuak justifikatuko dituen ebidentzia zientifikorik ez duten esku hartze edo produktu guztiak, edo OMEK

argitaratutako Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapenean (GNS-10) ageri ez diren patologien ondoriozko ezintasunak arintzea xede dutenak.

3. ERANSKINA

Ezinduentzako banakako laguntzak, emango diren gehieneko zenbatekoak eta haien izaera.

Izaerari erreparatuta, laguntza produktuak berreskuragarriak edo berreskuraezinak izan daitezke.

a) Produktu berreskuragarriak (PBG) dira hainbat pertsonak behin eta berriro erabil ditzaketenak eta leku batetik bestera eramatean garraio kostuak baizik sortzen ez dituztenak.

b) Produktu berreskuraezinak (PBE) dira pertsona erabiltzaile bakar baten onurarako direnak, edo, aparteko kasuetan, hainbat pertsonaren onurarako aldi berean, eta horren ondorioz eskualdatu ezin direnak.

Halaber, berreskuraezinak dira etxebizitzak egokitzeko obra zibilak eta laguntza produktu berreskuragarriak erabiltzeko egin beharreko obrak.

Diru zenbateko hauek emango dira gehienez ere:

1. Etxebizitzan irisgarritasuna lortzeko laguntzak.

Beste erakunde publiko edo pribatu batzuek atal honetan sartzen diren laguntzetarako dirulaguntzak onartuz gero, diruz lagundutako zenbatekoa deskontatu egingo da ematekoa den gehienezko diru zenbatekotik, laguntza hori gainerako laguntzen ordezkotzat izateagatik.

1.a) Oztopo arkitektonikoak kentzea: gehienez 8.000,00 euro.

Arkitektura oztopoak kentzeko obretan, onuradunaren partizipazio kuota baizik ez da hartuko kontuan, indarrean dagoen Jabetza Horizontalaren Legeak edo, hala badagokio, behin betiko epaia ezartzen duena. Obra horiek, duten izaeragatik, PBEtzat joko dira.

Eskaierak gainditzeko gailu eramangarriak PBGTzat jotzen dira.

1.b) Etxebizitzaren egokitzapen funtzionala (PBE):

Egokitzaren benetako kostua 8.000 euro edo gutxiago bada, laguntzak kostu hori osorik estali ahal izango du, baremoaren arabera.

Egokitzeko kostua 8.000 euro baino gehiago eta 12.000 euro edo gutxiago bada, laguntzak lehenengo 8.000 euroen ehuneko 100 berdinduko du, eta gainerakoaren ehuneko 75, baremoaren arabera.

Egokitzaren kostua 12.000 euro baino gehiago eta 16.000 euro edo gutxiago bada, laguntzak lehenengo 8.000 euroen ehuneko 100 berdinduko du, 8.001 eta 12.000 euroen arteko tartearen ehuneko 75 eta gainerakoaren ehuneko 50, baremoaren arabera.

Azkenik, egokitzaren kostua 16.000 euro baino gehiago bada, laguntzak lehenengo 8.000 euroen ehuneko 100 berdindu ahal izango du, 8.001 eta 12.000 euroen arteko tartearen ehuneko 75, 12.001 eta 16.000 euroen arteko tartearen ehuneko 50 eta gainerakoaren ehuneko 25, baremoaren arabera.

Inola ere ez da laguntza horien guztien batura izango handiagoa ezen ez "Ohiko etxebizitzako irisgarritasunerako laguntzak" izeneko 1. atal honetan sartzen diren irisgarritasun obren zenbateko guztirakoa, dena delako etxebizitza hori deialdi honetako onuradun izateko eskubidea duten bi edo pertsona gehiagok okupatzen dutenean; hau da, ezingo da gainfinantzaketarik izan.

2. Etxeko jarduerak egiten laguntzeko produktuak. Gehienez ere 1.000,00 euro.

2.a) Janariak eta edariak prestatzen laguntzeko produktuak.

2.b) Jaten eta edaten laguntzeko produktuak.

2.c) Garbitzen laguntzeko produktuak.

Oro har PBE dira, ezaugarriengatik berariaz PBGtzat katalogatzen direnak izan ezik.

3. Zaintza eta babes pertsonalean laguntzeko produktuak: gehienez ere benetako kostua.

3.a) Janzten eta eranzten laguntzeko produktuak.

3.b) Komuneko funtzioetan laguntzeko produktuak.

3.c) Garbitzen, dutxatzen eta bainatzen laguntzeko produktuak.

3.d) Manikura eta pedikura egiten laguntzeko produktuak.

3.e) Ilea zaintzen laguntzeko produktuak.

Oro har PBE dira, ezaugarriengatik berariaz PBGtzat katalogatzen direnak izan ezik.

4. Komunikazioan eta informazioan laguntzeko produktuak. Oro har PBE dira, dituzten ezaugarriengatik berariaz PBGtzat katalogatzen direnak izan ezik.

4.a) Ikusten laguntzeko produktuak (PBE)

4.a.1. Betaurrekoak erostea: 580,00 euro gehienez.

4.a.2. Lentillak erostea. 480,00 euro gehienez.

4.a.3. Ikusten laguntzeko beste produktu batzuk gehienez ere benetako kostua.

4.a.4. Irudia handitzeko bideo sistemak (PBG): gehienez ere benetako kostua.

4.b) Entzuten laguntzeko produktuak (PBE)

4.b.1. Audifonoak erostea. gehienez ere 1.800,00 euro audifono bakoitzeko.

Osakidetzak dirulaguntza onartuz gero, diruz lagundutako zenbatekoa deskontatu egingo da ematekoa den gehienezko zenbatekotik, laguntza hau gainerakoen ordezkotzat izateagatik.

4.b.2. Audifonoak konpontzea. gehienez ere benetako kostua.

Osakidetzak dirulaguntza onartuz gero, diruz lagundutako zenbatekoa deskontatu egingo da ematekoa den gehienezko zenbatekotik, laguntza hauek gainerakoen ordezkotzat izateagatik.

4.b.3. Entzuten laguntzeko produktuen osagarriak: gehienez ere benetako kostua.

4.c) Aurrez aurre komunikatzen laguntzeko produktuak (PBG): gehienez ere benetako kostua.

4.d) Laguntza produktuak telefonoz deitzeko edota telefonoaren ordezkotzat komunikazioa errazteko (PBG): gehienez ere 200 euro unitateko.

4.e) Alarma, abisu eta seinaleetarako laguntza produktuak (PBG):

4.e.1. Dei eta alarma abisuetarako sistema: gehienez ere benetako kostua.

4.e.2. Abisu eta seinaleetarako laguntza produktuak: gehienez ere benetako kostua.

4.f) Irakurtzen eta idazten laguntzeko produktuak (PBG):

4.f.1. Orri pasagailua erostea: gehienez ere benetako kostua.

4.f.2. Kantoreak erostea. gehienez ere benetako kostua.

4.f.3. Braille-an idazteko tresnak. gehienez ere benetako kostua.

4.g) Ordenagailuak (PBG):

4.g.1. Ordenagailuak, software eta sarrera-irteera gailu arruntak barne: gehienez 750 euro.

4.g.2. Software eta sarrera-irteera gailu bereziak: gehienez ere benetako kostua.

4.h) Ingurunea kontrolatzen laguntzeko produktuak (PBG): gehienez ere benetako kostua.

5. Mugikortasun pertsonalean laguntzeko produktuak eta lekualdatzeko gaitasuna handitzen duten laguntzak. Guztiak PBG, bestelakotzat jotzen direnak izan ezik.

5.a. Gurpil aulkiak.

Osakidetzak gurpil aulkiak erosteko dirulaguntza onartuz gero, diruz lagundutako zenbatekoa deskontatu egingo da ematekoa den gehienezko zenbatekotik, laguntza hau gainerako ordezko izateagatik.

5.a.1. Eskuz eragiteko gurpil aulkiak erostea: gehienez 2.000,00 euro.

5.a.2. Gurpil aulki elektrikoak erostea: gehienez 7.500,00 euro.

5.a.3. Baskulazio aukera: gehienez 1.300,00 euro.

5.a.4. Eserlekua igotzeko aukera: gehienez 1.900,00 euro

5.a.5. Kokots kontroleko aukera: gehienez 2.900,00 euro

5.a.6. Posizio sistemaren aukera: gehienez 1.500,00 euro.

5.a.7. Zutitzeko sistemaren aukera: gehienez 1.600,00 euro

5.a.8. Gurpil aulkian dagoena lotzeko/atxikitzeko aukera: gehienez ere benetako kostua.

5.b. Scooter-a: gehienez 2.000,00 euro.

5.c Gurpil aulkia konpontzea (PBE): gehienez ere benetako kostua.

OSAKIDETZAK gurpil aulkiak konpontzeko dirulaguntza onartuz gero, diruz lagundutako zenbatekoa deskontatu egingo da ematekoa den gehienezko zenbatekotik, laguntza hau gainerako ordezko izateagatik.

5.d. Eskuz eragiteko gurpil aulkia mugitzen laguntzeko sistema elektrikoa, zainzaileei laguntzeko: gehienez 1.000,00 euro

5.d.1. Propultsio gailu eskuzkoa edo elektrikoa, erabiltzaileak berak mugitzen dituen gurpil aukietarako: gehienez 1.500,00 euro.

5.e Ibilgailuak egokitzea: gehienez ere benetako kostua, kontzeptuen arabera muga hauek gainditu gabe:

5.e1. Motorrari eragiteko egokitzapenak (PBE): gehienez 1.200,00 euro

5.e2. Azeleragailua erabiltzeko egokitzapenak (PBE): gehienez 1.800,00 euro

5.e21. Balazta erabiltzeko egokitzapenak (PBE): gehienez 800,00 euro

5.e3. Enbragerako eta aldagailurako egokitzapenak (PBE): gehienez 1.800,00 euro

5.e4. Esku balazta erabiltzeko egokitzapenak (PBE): gehienez 1.200,00 euro

5.e5. Direkzio sistemari eragiteko egokitzapenak (PBE): gehienez 125,00 euro

5.e6. Bigarren mailako funtzioei eragiteko egokitzapenak (PBE): gehienez 1.600,00 euro

5.e7. Segurtasun uhalak eta arnesak (PBE): gehienez 300,00 euro

5.e8. Berariaz diseinatutako eserlekuak eta kuxinak: gehienez 2.300,00 euro

5.e9. Pertsonak autoetan sartzeko garabiak: gehienez 1.600,00 euro

5.e10. Gurpil aulkian autora igotzeko plataforma: gehienez 5.000,00 euro

5.e11. Arrapala tolesgarria: gehienez 2.500,00 euro

5.e12. Gurpil aulkia autoaren gainean edo barruan jartzen laguntzeko produktua (PBE): gehienez 4.500,00 euro

5.e13. Gurpil aulkia autoan lotzeko ekipamendua (PBE): gehienez 1.300,00 euro.

5.e14. Autoaren karrozeriaren egokitzapenak (PBE): gehienez 5.000,00 euro

5.e ataleko egokitzapen guztiek barruan hartzen dituzte instalazio, garraio eta homologazio gastuak.

5.f Gida-baimena lortzea edo birmoldatzea. (PBE): gehienez 1.000,00 euro

5.g Pertsonak jasotzeko, eramateko, lekualdatzeko eta atsedenerako laguntza produktuak (PBG): gehienez ere benetako kostua, kontzeptuen arabera muga hauek gainditu gabe:

5.g.1. Garabi gurpilduna: gehienez ere benetako kostua.

5.g.2. Horman, zoruan edo sabaian finkatutako garabia: gehienez ere benetako kostua.

5.g.3. Lekualdatzen eta biratzen laguntzeko produktuak: gehienez ere benetako kostua.

5.g.4. Ohe artikulatua: gehienez ere 1.000,00 euro, lastaira barne.

5.g.5. Ohe artikulatuaren aukerak, honako kontzeptu hauek direla eta:

5.g51. Ohe artikulatuaren aukerak, eskudelak: gehienez 100,00 euro

5.g,52. Ohe artikulatuaren aukerak, norbere kasa altxatzeko barrak: gehienez 100,00 euro

5.g.53. Ohe artikulatuaren aukerak, ohea altxatzea: gehienez 250,00 euro

6. Arreta espezializaturako laguntzak:

6.1. Diruz lagundu daitezkeen zerbitzuak:

6.1.a) Arreta goiztiarra garapeneko nahasmenduak dauzkaten edo edukitzeko arriskua duten umeentzako: gehienez ere benetako kostua.

6.1.b) (Ezabatua)

6.1.c) Garraioa:

Garraio publikoa: gehienez ere benetako kostua.

Garraio pribatua: garraiobide pribatua erabiltzen bada, EAeko administrazio publikoentzat arau orokor gisa ezarritako kilometro ordaina (0,29 euro/km) jasoko da, gehienez ere. Ez dira gastuak frogatu behar; nahikoa izango da joan-etorriak egin direla frogatzea.

7. Bestelako laguntza bereziak edo osagarriak: gehienez ere benetako kostua.

Kasu horietan guztietan, ematen diren diru zenbatekoak ezin dira, inola ere, eskatutakoaren baliokide diren laguntza produktuen edo jarduketaren merkatuko batez besteko prezioa baino handiagoak izan.